

## LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

### 1.- Egitasmoaren izenburua:

IKUS-ENTZUNEZKOEN EKOIZPENA ETA AIREKO LANAK

### 2.- Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2018

### 3.- Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- II. Kap.: Ekintzailetzarako laguntzak.
- III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarrizko zerbitzuetarako laguntzak.
- VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

### 4. - Proiektuaren helburua:

Helburu nagusia gabeziak betetzea eta droneen teknologia aplikagarria den hainbat sektoretan lan egiteko modua hobetzea da.

## AIREKO ZERBITZUAK ONDOKOAK DIRA:

### **A. Aireko publizitatea, streaming bidezko emanaldiak eta TB emanaldiak**

A.1 Aireko filmaketa droneak erabiliz.

A.2 Enpresentzako bideo korporatiboak: neurrira egindakoak, beharren arabera (aireko filmaketa, lurreko filmaketa, edizioa eta kolorea).

A.3 Aireko filmaketa droneak erabiliz, telebistako publizitate-iragarkiak eta Interneteko iragarkiak prestatzeko.

A.4 Kirol-ekitaldien filmaketa droneak erabiliz.

A.5 Aireko hartualdiak droneak erabiliz bideoklipak egiteko.

A.6 Ezkontzak airetik ikusita.

A.7 Streaming-saioak.

Dronetikan AirWorks enpresak datuak igortzeko ekipoak ditu, gure dronearen eta lurreko estazioaren arteko komunikazio-lotura ezin hobea bermatzen dutenak, baita kilometro batetik gorako distantzietan ere. Hala, irudiak *streaming* bidez eskaintzeko aukera dugu, denbora errealean eta FULL HD kalitatez.

Droneak baliatzen dituen igorpen-sistema aurreratu honek aukera ematen du irudiak *streaming* bidez eskaintzeko, unean-unean pantaila handietan bistaratzeko edo milaka jarraitzailek linean jarraitzeko.

### **B. I+G ikerketa eta garapen jarduerak**

B.1 Higiezinaren sustapena: zure etxebizitza saltzeko ikuspeirik onenak.

B.2 *Obra zibilean erabiltzeko aireko erreportajeak: edozein elementuren gainetik hegan egin dezakegu.*

B.3 *Haize-sorgailuak konpontzea: energia eolikoa eta plaka fotovoltaikoak.*

B.4 *Obrak eta eraikuntza handiak kontrolatzea.*

B.5 *Estalkiak eta fatxadak ikuskatzea.*

B.6 *Hirigintza-plangintza, hirigintzako arau-hausteak.*

B.7 *Mapa geologikoak egitea.*

B.8 *Kartografia eta aireko argazkiak.*

B.9 *Arkeologia-aztarnategien jasotze topografikoak*

### **C. Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategien kontrola**

C.1 *Nekazaritza: laboreen eta abereen kudeaketa*

### **D. Aireko behaketa eta zaintza, baso-suteen filmaketa eta zaintza**

D.1 *Baso-zerbitzuak: baso-eremuen kontrola eta suteen kontrola.*

D.2 *Trafikoa eta trafiko-istripuak.*

### **E. Larrialdi-, bilaketa- eta salbamendu-jarduerak**

E.1 *Hondamendi natural bat gertatu ondoren, pertsonak bilatzea eta erreskatatzea.*

**5.- Inbertsio totala:** 27.857,32 euro

**6.- Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:**

LEADER: 12.202,27 euro

Finantzatzeko beste iturri batzuk: 0,00 euro

**7.- Onuraduna:**

DRONETIKAN AIRWORKS, S.C.

Publikoa

Pribatua

**8.- Lankide edo entitate partehartzaileak:**

**9.- Inbertsio edo aktuazioen lokalizazioa:**

Zalduondo, Araba

**10.- Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):**

Gaur egun indarrean dagoen dekretuaren arabera, AESAk gaitutako profesionalek bakarrik erabil ditzakete droneak halako jarduerak egiteko. Orain arte, Araban ia ez da ustiatu droneen sektorea, eta proiektu honek zerbitzu ugari eman diezazkieke biztanleriaren hainbat sektoreri.

Zuzeneko zein zeharkako lehiakide nagusien identifikazioari dagokionez, konturatu gara sektorea gutxi garatuta dagoela Arabako lurraldean, oso enpresa gutxi eskaintzen baitituzte horrelako zerbitzuak. Era berean, egiaztatzea izan dugu enpresa gehienak jarduera bakarrean aritzen direla, batez ere, ikus-entzunezkoen ekoizpenean. Gure ustez, ahulguneetako bat izan daiteke hori, gu prest baikaude RPAS (*Remotely Piloted Aircraft System*) bat erabili behar duten askotariko jarduerak egiteko. Beste ahulguneetako bat bada gainerako enpresek denbora nahikoa behar dutela aireontziak armatzeko eta lan espezifikokoak egiteko behar diren kamerak edo tresnak egokitzeko. Gure kasuan, aldiz, eragiketa hori minutu gutxi batzuetan egiten dugu.

Gainerako enpresen beste ahulgune bat bada horietako askok tripulaziorik gabeko aireontzien pilotu-lizentzia baino ez dutela, baina horrekin soilik ezin da jarduerarik egin, operadore baten ikuskaritzapean egon behar baita une oro. Gure kasuan, behar diren baldintza guztiak ditugu; izan ere, pilotuaren ziurtagiria izateaz gain, operadore gisa ere alta emanda gaude. Hau da, ez dugu inor behar horrelako kudeaketak egiteko, eta arlo horretan buruaskiak garela esan dezakegu.

Gogoeta egiten badugu, gure iritziz, indargune asko ditugu beste enpresa lehiakide batzuen aldean.

Bestalde, dronearekin lan egiteko orduan, beste abantaila bat dugu, hegan egiteko autonomia handia eta ezohikoa ahalbidetzen digun egitura bat baitugu. Hau da, drona ia etengabe hegan egon liteke: lurreratu, bateriak aldatu eta berriro aireratu besterik ez da behar, 10 segundotik beherako aldian. Horixe da beste indarguneetako bat. Beste enpresa batzuek mantentze handiko droneak dituzte, baina hegaldi-denbora askoz txikiagokoa, 6 eta 10 minutu artekoa.

Bestalde, gure kasuan, beste abantaila bat da dronea erabiltzeko orduan, bi profesionalek egin dezaketela jarduera. Bata aireontzia pilotatzen, eta bestea kamera erabiltzen, dronearen baitako mugimendua kontrolatzen, zehaztasun eta kalitate handiagoko lana lortzeko.

Azkenik, ikus-entzunezkoen arloan, gure beste indarguneetako bat da egin beharreko lan guztien ekoizpen eta kudeaketa osoa eskaintzen dugula, bai sorkuntzaren ikuspegitik, bai ikuspegi teknikitik. Ikus-entzunezkoen egungo errealitatearen beharretara egokituta gaude, formatu berriak eta kalitate profesionaleko produktua lortzeko joerak ikertu baititugu.

## **11.- Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerrri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):**

Dronetikan AirWorks konpainiak orain arte eskualdean inoiz eman ez den zerbitzua eskaini du. Enpresa bakar batek ere ez baitu orain arte dronerik edo RPASik erabili. Horrela, esan dezakegu Dronetikan-ek kalitate profesionaleko zerbitzua eman diela enpresa txiki eta handiei, norbanakoei, zerbitzu publikoei.

Era berean, esan dezakegu Dronetikan gainerako enpresen gabeziei erantzuten saiatu dela, bere gailuen erabilerari esker.